

## 1.- BAIKARAREN OHIKO BATZAR OROKORRA.

Azaroaren 7an, larunbatean, 10:30ean BAIKARAK Ohiko Batzar Orokorra egingo du BEASAINgo LOINAZPE Institutuuko instalazioan. Batzarreko deialdi ofizialarekin batera, Federazioak Batzarra dela-eta argitaratu ohi duen buletina bidaltzen dizuegu, Batzarreko aztergaietara buruzko informazioa biltzen duena. Honako hauek dira izango dira aztergaiak:

- 2008ko azaroaren 8an Ohiko Batzarraren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 2008-09 ikasturteko kudeaketa memoria eta 2009-2010 ikasturterako ekintza plana.
- 2008-09 ikasturteko kontuen egoera eta 2009-2010 ikasturterako aurrekontua.
- 2009-2010 ikasturterako kuotak.
- Bazkide berriak eta Elkartearen uztan dutenak.
- Galderak eta oharrak.

Aurreko urteetan bezala, Batzarraren ondoren parte-hartzaileentzako lancha izango da Beasaingo kiroldegian.

Laburbilduta, honako hauek dira 2009-2010 ikasturterako **BAIKARAREN lanaren barruan lehentasun gisa hartzeko zereginen proposamena:**

- IGEen Estatutu Sozialak eguneratzearekin jarraitzea.
- Aurreko legealdia bukatu gabe gelditu ziren gairen jarraipena: Eskola Mapa berria, Hizkuntza ereduak,...
- IGEentzako gidaliburu bat argitaratzea, funtzionamenduaren oinarritzko alderdiei buruz (legedia, erantzukizuna, Batzordeko aldaketak, ekonomia...)
- Formazio eskaintza zabaltzea, gurasoei dagokienez bereziki.
- IGEen ordezkarietara dagozkion izapideak egitea, Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkezteari begira.
- Ikastetxe guztietan Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiak berritzeko proposamenak, ikasleen eskubideen eta betebeharren gaineko dekretu berriari egokitzeko, eta, bide batez, ikastetxeen antolaketari dagozkion beste alderdi batzuk eguneratzeko.
- Testu liburuen mailegu sistema berriaren jarraipena. Testu liburuen mailegu sistema berriaren jarraipena. 2009-2010 ikasturtean amaituko da Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan sistema berria ezartzeko prozesua, eta datozen ikasturteetan ezarriko da DBHn.
- BAIKARA aldizkaria: bi urte igaro dira EHIGE aldizkaria argitaratzen hasi zenetik, eta 2009-10 ikasturtean berriro BAIKARAREN aldizkariaren formatua berreskuratzea erabaki da, eta Gipuzkoa osorako argitaratuko da. Aldizkari horretan, EHIGEk eranskin bat txertatuko du, herrialde bakoitzeko federazioek argitara ematen dituzten aldizkari guztietarako berdina.
- EHIGE Konfederazioko Idazkaritza.
- "Euskadiko Eskola Kontseilua", "Inmigratio Foroko Hezkuntza Batzordea", "Donostiako Gizarte Kontseilua eta Euskararen Aholku Batzordea" eta beste foroetan parte-hartzea.
- 2010eko ekainaren 6an Arabako AMURRION (Araiako Kuadrillan) ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren Jaia.
- Beste batzuk: eskola jangelak, eskola garraioa...

## **2.- HAINBAT GAIARI BURUZko INFORMAZIOA**

### **2.1 A Gripea**

Ikasturte hasieran sortutako kezka gorabehera, ez da sumatu garrantzi handiko arazorik ikastetxeetan. Hezkuntza Sailak oraindik inolako ebaluaziorik igorri ez duenez, ezin esan dezakegu gaixotasunak ikastetxeetan zer-nolako eragin erreala izan duen. Ikastetxeetatik zabaldutako berri bakarra da erakunde ofizialek hitzartutako prebentzio neurriek (erabili eta botatzeko zapiak, paperezko xukaderak, xaboa...) sortutako ezohiko gastuari aurre nola egingo zaion zehaztu gabe dagoela.

### **2.2 Eskola Mapa**

2009ko otsailaren 12an, Eusko Jaurlaritzak eskola mapa berria eratzeko irizpide orokorren dekretua onartu zuen; hurrengo urratsa ikastetxe bakoitzerako proposamen zehatza aurkeztea zen. Baina dekretua argitara eman zutenetik, ez da ia aurrerapausorik eman, honako bi arrazoi nagusi hauengatik: bi sindikatuk dekretuaren kontrako helegitea aurkeztu izana, eta Eusko Jaurlaritzaren aldaketa; Hezkuntza Saileko arduradun berriek, eskola mapa berriari buruzko proposamenarekin aurrera jotzeko erabaki aurretik, lehendik onartuta zeuden irizpide orokorrak berraztertzea erabaki du.

### **2.3 Hizkuntza ereduen erreforma:**

Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du aurreko Sailak Eusko Legebiltzarrean hizkuntza ereduak aldatzeko aurkeztutako proposamena aurrera eramatea. Horretarako erabilitako argudioa da proposamen horrek ez zuela behar adinako adostasun politikorik. Hortaz, indarrean jarraituko dute orain arteko hiru ereduak (A, B eta D). Aurreikusitako aldaketa bakarra A ereduaren euskarari ordu gehiago eskaintzea izango da, Hezkuntza Sailburu berriak iragarri duenez. Orobat jakinarazi du datorren urtera begira hiru ereduko gaur egungo sistema gainditu eta sistema hirueledunerantz jotzeko proposamen bat aurkezteko asmoa duela.

### **2.4 Eskola jangelak**

Gobernu aldaketaren ondorioz, Hezkuntza Sailean arduradun berriak hasi izanaren ondorioz, aurreko ikasturtetik zain zeuden eztabaidagaien negoziazioak (araudi berria, greba...) ez atzera ez aurrera gelditu dira, arduradun berriekin bilera egin arte. Hezkuntza Sailarekin eskola jangelei buruz izandako harreman bakarra irailean 21ean Lakuan egindako bilera izan da. Bilera horretarako deia Hezkuntza Sailak berak egin zuen, eta honako xede hau zuen: Federazioei jakinaraztea ikastetxeei jarraibide bat igorri zitzaie, jangelako beka eskuratzeko eskaria ohiko epeetatik kanpo egin ahal izango zela gogorarazteko. Hain zuzen ere, krisi ekonomikoaren eta langabeziaren igoeraren ondorioz, familien egoera ekonomikoan aldaketak gerta daitezkeelako eman zaie aukera hori.

Federazioek eta EHIGEk Hezkuntza Sailari adierazi zioten denbora epe laburrean eskola jangeletako araudiaren aldaketaren negoziatorako proposamenak aurkezteko asmoa genuela.

### **2.5 Hezkuntza Gidaren 2009ko argitalpena**

Federazioek EHIGEk argitaratutako Hezkuntza Gida berria jaso dute. Datozen egunetan gidaren zenbait ale bidaliko zaizkie IGEei.

### **2.6 Curriculumeko aldaketak**

Hezkuntza Sailburu berri Isabel Celáak iragarri zuenez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko curriculum ofizialean zenbait aldaketa egite onartu du; honako hauek, hain zuzen ere:

- euskara nahiz gaztelania izango dira irakaskuntza hizkuntzak.
- "Euskal Herria" kontzeptua definituko da, eta lurralde kontzeptu gisa ezabatuko da, autonomia erkidego eta herrialde desberdinak biltzen dituen lurralde gisa ezabatuko da. Ez da izena curriculumetik ezabatuko, baina "euskararen herriaren" zentzua emango zaio, alegia, kultura eta hizkuntza komuna duen lurraldearen zentzua.

### **2.7 2.0 Eskola Proiektua**

Otsailetik aurrera, miniordenagailuak eta arbel digitala eskuragarri izango dituzte LHko 5. mailako ikasleek, beren ikasgeletan. Gai honi lotuta, ordenagailuak sarera lotzeko sistema wi-fi sistema erabiltzearen kontrako iritziak zabaltzen ari dira, eskolako kide orori uhin elektromagnetiko horiek ekar diezazkieteketen balizko arriskuak direla-eta. Talde batzuk OSASUNIK GABE, AURRERABIDERIK EZ kanpaina sustatzen ari dira, Hezkuntza Sailari eskatzeko wi-fi sistemaren ordez kableak erabil ditzaten konexioetan. BAIKARAK, oraingoz, ez du jarrera jakinik hartuko, informazio nahikorik ez duelako eta esku artean duen informazioa kontrastatu beharra duelako. Gai honi buruz informazio gehiago [www.covace.org](http://www.covace.org) web orrian aurkitu dezakezue.